



OHIKO KULTIBORAKO GOROZKIAK BILTZEA

BEHARREZKO MATERIALA

Aho zabaleko ontzia	Bakterioak garraiatzen dituen isipua
	

* Haurren pixoihaletan gorozkiak jasotzea, lagina espatulaz hartzea ezinezkoa denean

LAGINA JASOTZEKO TEKNIKA

1. Makilatxoarekin edo koilaratxoarekin gorozki kopuru txiki bat bildu, ahal dela mukiak, odola edo zornea dagoen leku batetik.
2. Ez ukitu ura edo gernua. Ez da komuneko paperik erabili behar, bertan bakterio patogenoak inhibitzen dituzten bario-gatzak daudelako.

PIXOIHALAREN LAGINA JASOTZEKO TEKNIKA

1. Gorozkiak pixoihaletik jasotzen badira, berriak izan beharko dute eta azalekoenetik bildu beharko dira.

LAGINA ISIPUAREKIN JASOTZEKO TEKNIKA

1. Sartu isipua uzkiko esfinterra pixka bat gaintuz. Biratu, uzkiko kriptak hartzeko.
2. Utzi 10-30 segundo mikroorganismoak errazago xurgatzeko, eta kendu isipua.

KOPURUA

- Intxaur baten gutxi gorabeherako tamaina (10 g) duten laginak behar dira; gorozkiak likidoak badira, 5-10 ml bitarteko bolumena jasoko da.

LABORATEGIAN ENTREGATZEKO EPEA

- Gehienez 24 ordu.
- Laborategira berehala bidaltzen ez bada, hoztu 2-8 °C-an.